

Gure drogak

Kezkatuta bizi gara drogaen zabaltze eta ondorenekaz. Gure errian eta gure familietan ezagutzen doguzan ondoren larri eta negargarriekaz.

Ez ete zan egon gure zarren denporetan, orain berreun, irureun, laurendak urte, orrelako burukomiñik?

Jakiñak dira tabakoa azagutu zanean, zelako neurriak artu ziran toki askotan, nai ta alperrik.

Gero ardaua etorri zan.

Euskaldunak, batez be gure errialde onetan, problemak euki zituen ardaugaz. Sagardaua ba egoan bertan. Txakoliña be bai. Eta ardaua?

Gure itxasertzean, esan bearreko da, napar ardaua baiño lenago ezagutu zala galizitarra.

Zegaitik?

Ezpai barik bideak bitarteko.

Gure itxasontziak Galiziraiño joaten ziran merkataritzan. orduko bela eta erramuak indartzar zituen txalopak, aizerik ez ba egoan izerdi likiñez erabili bear ziran denporetakuak, itxas bidea ikasia euken eta libre. Legorrekoa, Jainkoak jakin zelakoa izango zan.

Baiña itxastarrak XV garren gizaldirako Sevilla eta Cadiz'en ezagutzen doguz, ia bertako eginda, eta ba dira diñoenak mende orretan Mediterraneo'ko uretan ezagutzen ziran merkataririk adoretu eta ausarditsuenak, euskaldunak zirala.

Ondarroa'ko paper zarretan, laster billatu leikez gure esaera ziurtatzen daben agiriak. Eta euretan Ribadabia'ko ardaua eta Andaluzia'koari buruzko kontuak agertzen dira. Ala 1629 urtean, argi ikusten da Galizitik eta Andaluziatik, bietatik, ekarten zala ardaua. Eta

ordez, Naparroakoa ekarteko, Elorrioren egoan baten bitartez alegiñak egiten asi ziran.

Baiña txakoliñari kalte egiten eutsala eta origaitik, 1659 urteko agindu bat aurkitzen da, geiago iñundik ardaurik ez ekarteko erabagiaren barri emoten.

1708 urtetik aurrera, txakoliña euketak zin (juramentu) egin bear izaten eben txakoliña amaitu jakoela, ardaua ekarteko baimena emoten asteko.

1785 urtean beste jakingarri bat billatzen dogu. Abustuaren 13'an, erriko arduradunak batuta erabagi eben txakoliña egoan bitartean, arduarik ez saltzeko, osagillearen zertifikatua eukenei izan ezik. Eta errian sartzen zan ardaua Kontzejuko zaindariaren giltzapean gordetzen zan. Eta premiña agertu ala, zaragia ataraten zan saltzera, baiña gaixoentzat bakarrik eta ondo neurtuta, osagillearen egindupean.

Urte orren azkenetan (1785), erriaren ordezkariak erri-batzarrean eskatu eban erritarrak erreguka ebiltzala «aguardientea» errira ekarteko, ainbat egunetan, negu baltzeko goizaldetan, itxasora urten bearrean aurkitzen ziran arrantzale errukarrien premiñetarako.

Ordezkariak esan eban lez, ordurarte ez egoan edari ori errira ekarten zan zirutasunik, bete-betean galerazota egoalako, baiña komeni zala ekartea. eta au esaten zan: Proba lez ekartea eskatzen zala, orren ondorenez, erriko oiturk eta familiak makaltzen igarten ba ziran, barriro galerazoteko.

Eta urte baterako baimena emon zan.

Itxuraz, baimen ori barriztaten joan ziran, eta 1808 urtean eskaria era onetan

agertzen da: Errira ekarriko zan aguardientea, al ba zan, frantzesia izan eiala.

Beraz lenengotan ukapena, gero errezetak, gero geldiro-geldiro baimena, eta azken baten, al ba zan, koñak prantzesia ekarteko.

«Ese espíritu para fomento de los pobres mareantes» deitutuen eutsen gure erri ordezkariak aguardienteari, baimena lortzeko.

Zein ukatu «espíritu bizigarriari» atek zabaltzen?

Gure droga zarren istoria or dago. Erri txiki bateko paperetatik sustraiak artuta. Ondorenak... gure eleizetako parrroko zarrak ez ziran ausartuten erioztako paperetan gordin agertzen. Baiña kanposantuetako kurutza askok berba egingo ba lebe...!

Augustin ZUBIKARAI